

BIHOTZEZ TXASTAU DAUANAK DAKI

1

Bizian Goran, anai-arrebok,
alkartu gara barriro,
gure erdian Jesus dogula,
hementxe bai dala giro!

2

Andra ta gizon alkartzen gara
famili askotakoak,
baina Bizian Gorari esker
gara senitartekoak.

3

Kristautasuna zein ederra dan
hemen ikasten da hori,
Jesukristoren jarraitzailea
hau bai dala kategori!

4

Bizian Goran gabiltzanetik
gara lehen baino gehiago,
penagarria eskola on hau
ezagutu ez lehenago!

5

Jesus gurekin bizi dogula
zer poz-iturri sakona!
Hau jakiteak emoten deuskuz
bakea ta zoriona.

6

Hamabostero alkartzen gara
Jesusen maitasunean,
honek poztu ta bixkortzen gaitu
kristau alkartasunean.

7

Pasealdiak, karta-jokoak
ta mila denporapasa,
gustoko jakuz, baina gehiago
Bizian Gora, Tomasa.

8

Bizian Gorak emon deuskuna
ezin saldu diru-truke,
merkatu baten ez da salduko
hain gauza ona hain merke!

9

Hau ez dau inok diruz erosi,
ez eta buruz ikasi,
dabilenari emoten deutso
Jaunak behar dauan grazi.

10

Erdiak ere ez dira izan
hemen esan doguzanak,
hau zein ona dan bakarrik daki
bihotzez txastau dauanak.

Martzel